

Joseba Jaka lagunari...

Lehendabizikotz hi gabe eta etzekiat ahal izango dudan... gorputza oraindik minberaturik zeukeat, hankak ahuldurik, burua nekaturik, bihotza samindurik, begiak lehorteke, umel....

Ezin ahantzi hirekin mendian igarotako uneak, ezin ahaztu hik erakutsitako kementa.... ezin diat.... ez diat nahi.

Burura zetorkidak Xabier Lizardiren "Mendi-gaiña" poemaren hasiera:

"Maite ditut gaillurrak

argiak ez beste...

Ai, egaztia banintz

gainik-gain nencilke."

Lehendabizikotz hi gabe eta orain hi hegazti!



ARANTZAKO ZIRKOA

mila metroz gaindi mendiak gailenduz

Mikel Arrizabalaga

BORTZIRIAK, Lesaka, Bera, Etxalar, Igan-tzi eta Arantza herriek osatzen duten konfederazioa da. Gure ibilaldiari hasiera emateko azken herri hau, Arantza alegia, aukeratu dugu, bertatik bakarrik begizta daiteke bere osotasunean **Arantzako zirkoa**.

Makina bat ibilaldik dute abiapuntutzat herri hau, baina esan behar da inguruko herriak ere zirkoko eta aldameneko mendiara abiatzeko leku aproposak direla, hala nola Ezkurra ibaiaren urek bustitzen dituzten Ituren, Aurtitz, Zubieta, Doneztebe, Elgorriaga herri eta auzoak, bestetik Bidasoa ibaiaren urek zeharkatzen duten Sunbilla herria eta azkenik Urumea ibaiaren ondoan kokaturik dagoen Goizueta herria. Paraje hauek ere aukera ezin hobea eskeintzen digute lehen aipaturiko auzo eta herri horiek ibilaldi ezberdinez lotzeko.

Gure ibilaldiari **Arantzako (275 m)** udaletxearen parean eman diogu hasiera. Goizeko bederatzi t'erdia, kotxetik atera eta lehen ajeak uxatuz berehala mendirako





Goiko aldean.

Ekaitzatik (1047) Arantzako zirkoa. Lehen planoan ezkerretara Unanu (651) eta eskubitara Apaola (683). Bigarren planoan berriz, ezkerretik eskubira Xoldokogaina, Mandale, Larrun, Ibantelli, Atxuria

prestatu gara. Botak jantzi, motxila eta gogoak soinean hartu eta kale tartean murgildu gara. Berehala lehenengo maldatxoa, kanposanturantz garamatzana. Eskubitara, postal bat bailitz, bailara osoa ikus daiteke, egin behar dugun ibilaldia oso nabarmena delarik.

Pista batekin topo egin dogu

Laister hilerrira heldu gara, hau alboan utzi eta baso txiki batean sartu gara. Hau amaitzean pista batekin (lurrezkoa zorionez!) topo egin dugu eta hau jarraituz gorantz jarraitu dugu. Bidegurutzeta. Ezkerretara hartu altuerarik galdu gabe eta borda batzuen ondotik igaroz bidea oso nabarmena da, bide honek eramango gaitu Bulatxiki leporaino. Bide polita, alde batean zuhaitzak ilaran ibilbidea ondo seinatuz, bestaldean zelai berde malurtsuak, tarteka metaren bat edo beste. Bidea utzi gabe **Bulatxiki bidegurutzetara (568 m)** heldu gara. Hau sorpresa! Hau zoritxarra! Lepoaren bestaldetik bertaraino doan kotxeentzako prestaturiko pista zabal batekin topo egin dugu. Horrelakoak geroz eta gehiago! Mendien ustia- ketaren izenean alajaina! Mendiari eginiko orbainak! Mendi beti gaixorik! Gaixotasun sendakaitza...

Ezkerretara begiratzuz **Oianberri (657 m) eta Apaola (681 m)** mendien tontorrak, bide leuna, alfonbra bat bailitz bertaratzeko moduan, baina egin nahi dugun bidea ez bait doa hortik. Gure aurrean lehen esan lez, zibilizazioaren aztarnak, baina hori konpen-tsatu nahiean edo hor ageri zaigu zorrotz, dotore, arrokatsu, **Mendaurren gailurra (1181 m)** eta bere magala berdeak, bere ondoan **Atzurdi-ko punta (1004 m)** edertasun horren osagarri ezin hobegorik egokitzen zaiolarik.

Jarraitu beharreko bidea oso nabarmena da, ez dago galtzerik, gandorrari heldu diogu eta **Zipurura (725 m)** berehala heldu gara. Mairubaratzarantz zuzendu ditugu

Goiko aldean ezkerretara.

Mendaurren magaletik Ekaitzarantz doan mendi-hegia. Ekaitzaren atzetik Loitzate (1048) agertzen da

Ezker aldean.

Mendaurren iristear, Doneztebe herria eta Bastango mendiak

gure urratsak, gure oinpean desira daitekeen alfonbrarik ederrenaz gozatuz. Aska batekin topo egin dugu, ur gardena, freskoa, edangarria, baina oraindik kantinplorak beterik dauzkagu, beraz tragoxka egin eta aurrera! **Mairubaratzara (848 m)** ailegatzean bi aukera ditugu: **Mendiederrera (1072 m)** igo eta gero **Mendaurren (1131 m)** edo bestela tontorra sahiestuz eta bere magala zeharkatzen duen bidezidorra jarraituz Mendaurren zuzenean abiatu. Bigarren hau aukeratu dugu, oraindik egin beharreko bidea luzea bait da.

Berehala **Buztin lepora (931 m)** iritsi gara, lepo zabal eta garbia, eta **Mendaurren** igotzeko azken berrehun metroei aurre egin diegu. Berrehun metrotako desnibela duen malda ederra, gogorra, zigzagean laister batean bertaratzeko gaituena. Heldu baino lehen lurraren bihotzetik ateratzen den iturritik guztiz naturala (beherakoan kantinplorak betetzeko egokia), harrizko bloke erraldoiak erortzeaz eta azkenik gizonak landuriko eta bertan jarririko amaigabeko hirurogei maila gure azken ahalegina betetzen laguntzen dutelarik.

Mendaurren tontorra (1131 m), hegi oldartsua, ikuspegi zabala: Larrun HE, Aizkolegi-Alkurruntz, Hautza E, Alba EHE, Saioa HE, Zoratxipi H, Arnaitza, Aralar HM, Ekaitza M, Aia-Jaizkibel IM, Ezkurra ibaiaren bailara, Bidasoa-Baztan inguruak, Artikutzaren lur-eremuak,...urrutian Pirinioak.

Hirutasunaren ermitak merezi du aipamen txiki bat besterik ez bada. Ermita hau 1692. urteko abuztuaren 2an jaso zuten eta bertan badago esaera bat honela diona: "Ixilik Jainkoaren itza nere etxea oititz etxera". Ospe handikoa zen mendi inguru hauetan eta Bortziriko erromesen gain, Goizuetatik, Labaiendik, Ezkurako bailaratik, Dones-tebetik Ituren arte eta baita Erreterri eta Oiartzungo herrietatik etorri ohi da jendea. Babesarik ez duenez maiz konpondu behar izan dute. Oraingoan ere teilatua konpontzen ari dira.

Argazki pare bat atera eta...

Ekzerretara urtegia ikus daiteke, bere urak Aurtitz herria zeharkatzen duen Ezkurra ibaia isurtzen dituelarik.

Edertasunari so eginez, ezin ase beti gose. Haize freskoak jertsea jantzi arazi digu eta arroken babesa bilatu dugu, mokadutxoak jan, argazki pare bat atera eta.....

Ekaitzarantz.

Beherakoan, kantiplorak bete eta **Buztin lepora (931 m)** jeitsi gara. Lepoz lepo eta zailtasun handirik gabe, hegal belartsua jarraiki, Ekaitzaren magalera heldu gara. Haizeak leunago jotzen du hemen eta azken aldapatxoari (motza baina gogor xamarra) aurre egin diogunean atzera begiratu eta han geratu dira oreka dotorean Mendieder, Mendaur, urtegia eta perspektiba galtzeko, fondo gisa, Euskal Pirinioek osatzen duten ziluetan paregabea.

Ekaitzaren tontorrera (1047 m) iritsi gara, balkoi ezin hobea zirkoa bere osotasunean begitatzeko: Oianberri, Apaola, Mendieder eta Mendaur alde batetik eta lbin-tza, Loitzate, Beltzuntze, Izu eta Unanue bestetik, behean, **Arruzpi** errekek bailara osoa erdibitzen duelarik. Guztiaz erreparatu ondoren hegaletik jaitsi gara pagadian tarte batez sartu garelarik, hemendik behe-rantz eginez gero Arantzara zuzen joan daiteke baina guk berriz gorantz egin dugu, **Ekaitzako ataka (929 m)** pasa eta **Gurutzetara** heldu gara, Artikutzako lur eremuetan sartu gara (hemendik **Loitzatera** desbidera daiteke). **Ibintzaren** magalean dagoen pagadian pago handi baten itzala aukeratu dugu atsedena hartu eta bazkaltzeko.

Sabela ase, gorputza erlajaturik lokuluxka egiteko betarik ezin hobea eskeintzen digute pagoaren gerizpeak eta koltxoi berdeak baina denbora aurrera doa eta oraindik ibilbidearen zati handi bat falta zaigu itzulia osatzeko.

Ibintzara (1039) laister batean igo gara, tontorretik **Karasuetako atakara (980 m)** jeitsi gara hesiaren bestaldera pasa asmoz (gandorra jarraituz **Beltzuntze-**

Eskuin aldean.

Bidean topaturiko asketako baten ur fresko eta gardenaz kantiplorak betez, ibilbidearen azken zatiari ekiteko asmoz

raino joan daiteke). Hemendik zirkoa bere osotasunean egin nahi izanez gero **Izurantz** eta ondoren **Unanue-rantz** abiatu behar da. Guk oraingoan ibilbide motzeta aukeratu dugu eta ordurarte irabazitako altuera osoa galdu behar dugu Arruzpiko errekaraino jeitsiz. Bidea oso errez asma daiteke, batzutan bidezidorrak, bestetan porlanazko pistak (bordetara eta baserrietara heldu ahal izateko) eta azkenik **Arruzpiko zubiraino** lttoltzatik jeisten den bidea, harriz landurikoa, galtzara itxurakoa. Lagunen bat errekan sartu eta harri baten gainean urhotsaren lagun-tzaz gorputza erlajatzeko, gogor jotzen duen eguzkiarekin izkutaketara jolasean edo.

Zubia gurutzatu eta eguzkipean azken maldari ekin diogu **Arantza** herrian sartu arte. Trasteak kotxean laga, botak kendu (hau bai gozarena!) eta tabernara joan gara garagardoa gaseosaz nahasturik gure gorputzen mesedegarri bihurtuz.

Nekaturik, aseturik, liluraturik,..... gustora ibili gaituk,..... ezta Joseba?

DATU INTERESGARRIAK

Bibliografia

- "Euskal Herriko Mendiak". Miguel Angulo. Elkar 1995
- "Pirineoak I". Miguel Angulo. Elkar 1992
- "Euskal Herriko 100 gailur eta 1000 txoko". Luis Pedro Peña Santiago. Elkar 1990
- "Guia de Montes de Navarra". Idazle aunitz. Sua 1991
- "Euskal Herriko Mendien Katalogoa". E.M.F. Pyrenaica 1991
- "Mendiak 3". Idazle aunitz. Etor 1982
- "Guia del Pirineo Vasco". Miguel Angulo. Elkar 1990

Kartografia

- "Artikutza-Mendaur". Imanol Goikoetxea. Aranzadi Zientzia Elkarte 1995 E 25 m
- "Vera de Bidasoa". 25-5 (65). IGN 1982
- "Sumbilla". 25-6 (90). IGN 1982



Esker aldean. Ibintzaren (Araña) magalean, mokadutxoak hartuz pago handi baten itzala probetxatuz

AUKERAK EZBERDINAK

ZIRKOA

1. go aukera: ARANTZAKO ZIRKOA (I)

Arantza (275) - Bulatxiki bidegurutzeta (568) - Zipuru (725) - Mairubaratzeta (848) - **Mendieder** (1072) - Buztin lepoa (931) - **Mendaur** (1131) - Buztin lepoa (931) - **Ekaitza** (1047) - Ekaitzako ataka (929) - Gurutzeta - **Ibintza** (1039) - Karasuetako ataka (984) - Bordak - Itoltza - Arruzpiko zubia - Arantza (275).
Desnibela: 1540 m.
Denbora: 6 or. 45' JE

2. aukera: ARANTZAKO ZIRKOA (II)

Aurreko ibilbidea jarraitu Karasuetako atakaraino (984) - Baraxar (737) - **Izu** (829) - Pagolleta (685) - **Unanu** (651) - Bordak - Landandoko erreka - Arantza (275).
Desnibela: 1720 m.
Denbora: 9 or. 45' JE

ZIRKOTIK AT DESBIDERAKETAK

a. Apaola (683): Bulatxiki bidegurutzetatik.

Desnibela: 115 m. Denbora: 45'

b. Loitzate (1048): Ekaitzako atakatik.

Desnibela: 120 m. Denbora: ordubete

c. Beltzuntze (940): Karasuetako atakatik.

Desnibela: 40 m. Denbora: 30'

IGOERA ZUZENAK

MENDAUUR (1131 m)

Aurtizetik Desnibela: 950 m
Denbora: 5 or. JE

Arantzatik Desnibela: 880 m

Denbora: 5 or. 30' JE

Sunbillatik Desnibela: 1040 m

Denbora: 5 or. 10' JE

Iturendik Desnibela: 950 m

Denbora: 5 or. JE

LOITZATE (1048 m)

Zubietatik Desnibela: 880 m

Denbora: 5 or. JE

Goizuetatik Desnibela: 550 m

Denbora: 3 or. 30' JE

EKAITZA (1047 m)

Iturendik Desnibela: 830 m

Denbora: 4 or. 30' JE

Arantzatik Desnibela: 790 m

Denbora: 5 or. 30' JE

MENDIEDER (1072 m)

Aurtizetik Desnibela: 890 m

Denbora: 5 or. JE

IBINTZA (1039 m)

Zubietatik Desnibela: 870 m

Denbora: 5 or. JE

ATZURDI PUNTA (1004 m)

Iturendik Desnibela: 860 m

Denbora: 4 or. 30' JE

IZU (829 m)

Artikutzako errepidetik

Desnibela: 350 m Denbora: 4 or. JE



Egilearen argazkiak

RESUMEN

EL CIRCO DE ARANAZ (Arantzako Zirkoa)

HACE quince años ofrecimos en Pyrenaica un trabajo breve de Iñaki Bengoetxea, relatando una excursión por el circo de Aranz ("Aranazko Zirkoa", nº 129, 1982). Volvemos sobre ella porque es una zona del NW navarro, cerca de la muga con Gipuzkoa, de un interés muy alto para los montañeros. Son unos hermosos cordales de montañas, con unos pronunciados desniveles, que llegan a los mil metros en los casos de aproximación desde la cuenca del Bidasoa.

Su punto culminante es el monte Mendaur, Mendaurre o Abelegi, con su ermita de la Trinidad en la cumbre, de azarosa historia. Construida en 1692 en un lugar en el que un siglo antes se había acusado a María de Ituren de brujería, confesando que era lugar de "conventículos". En 1781 el obispo mandó demolerla porque "servía de refugio a bandidos y gentes de oscuros negocios". El alcalde de Ituren encarceló a los que fueron a demolerla. La actual ermita data de 1963 y es un verdadero placer ver desde allí amanecer sobre el Pirineo del Baztan y del Quinto Real. □

